IRALLA
26
Egubaztena
Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA

Bilbao'kua... ...	6,00	Irko.	Iru ilez
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.801 zenbakija

Egunekua

¡Zuzutsa...!

Zuzutsa dan edeſa, ta ezin ikusi dogu iñun be. ¡Nundik eta nora ete-dabil zuzutsa...!

Zuzutsa, "justizija", irakuſle, gixaſtetik ondo uſun aldendu zan, beintzat.

Beñola, Velarde ixeneko jauſlarija Bizkai'ratu zanian, zuzutsa berak ekaſala esan euskun.

Berak ekaſala, ta berak zabalduko ebala... Eta zabaltze onetan, esku-zabala ixango zala...

卐 卐 卐

Onen itz edeſak esan euskuzan jauſlari au Bizkai'ratu zala, ainbeste egun igazi dira.

Velarde deritxon jaun oneri, Bizkaya'n igazi dauzan egunetan, belaſija ondo ikusi yako. Zuzutsik, baña, ondiño etxako ikusi, ezta ain edeſto erakutsi dauskun belaſi-aſtzian be.

Jaun bakan oſegandik, zuzutsa, irakuſle, uſun dabilala dirudi. Eta onezkero, ureratuko yakan antzik be eztago. Zuztsa dan edeſa ixan, eta iñun ezin idoro... ¡Au tamala!

Bide-lapurrak

Bide-ziaſ bere bidian doyan bidaztijar: auſeratuta ¡gora eskubak! didaſ dagitsienaz batera indaſ-bidez aldian daruazan txindi ta ogasunakaz jaubetuten diran gixakijakaſik, "bide-lapuſak" esaten dogu.

Gauſ-egunetako "atrakadoriei" be, ixen au edeſto yatoſkijue.

Oneſariko lapuſak, zoritxaſez, aspaldijon asko ugariſu dira. Eta antza dagonez, gitxiſuko diran antzik eztago, ugariſuko diſanena baño.

Lenguak naikua ixan ezpa-liran, baſijak ageſtu yakuz, ba, ta bide-lapuſok atxilotu ta zigoſtuteko eskubidia daukanaren lakemenaz ageſtu be.

¿Bide-lapuſ baſijok, nortzuk diran?

Zeuk igaſi, irakuſle, igaſkixun onetarako "aztu" edo "aztijagana" juan biaſik eztozu-ta.

Esamesak

Igazi dan astelen goxian Bilbao'ko "Tipográfica General" deritxon banakolean jazo zana dala-ta, esamesea baño eztana ba-dabil egaletan.

Aſaturiko astelen goxian, esamesok diñuenez, Bilbao'ko Correo-txaidian lapuſak saſtu ei-ziran, eta jauzkako burdija jauzkako, bete-beterik txaidian zala saſtu be.

Correo - txaideko 17'gaſen zenbakijan saſtu ziranak, "Tipográfica General" deritxon txindi-kutxatik, 4.400 lauſleko eruan ei-ebezan. Eta txinditza au sakeleratuta gero, eurenak etziran txindijakaz jaubetu ixan ezpa-litzazan, jauzkakuak eurak lagunduta txaideratu ei-ziran.

Auzaſkeri au, baſiz, eguerdiko eguzki-argiſan egin ei-eben, Correo-txaidia bate ra-besterako notiñaz bete-bete eginda aurkitzen zan orduban.

Eguzki argiſen ebiltzan notiñen begiratutiak be, txindi-eruatzale arein aurpegirik goſiſuterik ez ei-eben jaditxi.

Jazokun onek, baſiz, esamesok, getu baño eztauz egin.

Gixaſteko gentzea gura daben gentza-zaliak, zuzutsari deika asi ei-ziran.

Zuzutsak, baña, iñundik be ez ei-eban erantzuten, ezta "El Pueblo" ta "La Gaceta" zuzuts-zalien etxietatik be.

Matxiñadea

Bilbao'ko "La Gaceta" atso baſitsuba, abeſtzaliak matxiñadea soſtu biaſ dabela-ta, goyak eta beyak joten asiſa dago.

Zorgin-antza aſtuta dagon atsotxu bakan oſek, gentzea gura dabela diño.

Eta gentza-gurako atsotxu bakan oſek, matxiñadea soſtuteko zijo-biſa ortik ziri ta emendik ziri dabiltzan izkiludun jaun altsubei, txaluak joten diñardu.

Alde gustijetatik zirikatu ta indaſ-bidez erasoten dautsen etxe-txakuſ zintzuari, etxe-baſuban saſtuta iñora urtetako azkatasunik eztaukala, dagitsiezan erasoetatik aldeztuten dan benetako gentza-zaliari, ostera, auſpegi iluna iminden dautsa, ta berba gogoſakaz gaiztetsi. Eta gustija Jaun-Goikua'ren aintza geyagorako, uskuſtzearen onerako (?).

"Katoliku"-ixeneko izpaſingi oſeik egiſen dabena uskuſtza-lagizkua ba-da, guri irakatsi euskubezan kistaſ-ikasbideko lagun urkuaganako maſasuna ta abaſ, alpeſik irakatsi euskubezan. ¡Alpeſik, irakuſle!, "katolikuen" aſtian gorengo molaratuta ageſtuten yakuzanen aſtian, lagun urkuaren ixen ona guzuſ-bidez galduta sendijetara negaſa ta zoritxaſa daruezan asko ikusten doguz-eta.

Lotsagaſizko egiñen oneik onetara agiri-agirijan kistaſ zintzuen aſtian zabalduten jaſaitzen daben aſtian, uskuſtzeak gauza on gitxi irabaziko dau. Galdu ostera, batzuk uste daben baño geyago.

Aſtaldian kalteſik aundijena egiſen daben otsuak, irakuſle, basamoſtubak-bera jasten diran otso gosetijak eztira ixaten, ba, ardi-naſuz jantziſa artalderatuten diran otso maltzuſak baño.

"Katolikuen" ixena auſetik imiñiſa geidiaren eskubidiak ostikoperatubaz lagun urkuaren ixen ona guzuſakaz galdu ta sendijetara negaſa ta zoritxaſa daruenak, oſixek dira ardi-naſuz jantziſa gixaſtera azi txaſa daroyen parixetaſak.

Beraz, ¡zuſ, irakuſle, zuſ!, bildotsak diſudijen otso maltzuſen agin-aſtian jausiſa betiko ondatu ezkaſezan.

Ondo etorrija

Bizkaya'n dogun jauſlarijak Burgos'ko espetxera bidaldu ebazan Bilbao'ko ziñegotzi eſikovak, ostera be euren eſi maſeratu dira. Ondo etoſijak.

Ordez, ostera, Bilbao'tik urten biaſko dana, oraingo jauſlarija berau ixango da. Goikua'ren zuzutsa, bekuona baño zuzenago dabil, ba...

URIBIŦAŔTE'TAŔ IBON.

Deunen-bixitzea

Jaungua'ren Jon deuna

Epalla-8'gn.

Jaungua'ren Jon deuna jayo zan Monte-Mayor deritxon urijan, Portugal'eko laſeſijan. 1495'gn. urtia zan, Portugal'taſak India-ziaſ ebiltzan aldija. Etzan laſeſi aren bestekorik. Artzañak eta lugiñak, arotzak eta argiñak, gustijak izten ebezan euren ogibidiak eta gudari-antzo juaten ziran. Ciudad eta Duarte'taſ Jon'i, be olako asmo bixijak soſtu yakozan.

Monte-Mayor eſitxuban bixi-eziñik, bere guraso txiroen etxia itxi eban. Evora urija atzian itxi ta Guadiana-Ibaya beste aldera pasau eban. Olan saſtu zan Castilla'ko luſaldietan. ¿Baña zer egingo eban zortzi urte baño ezeukozan gasteño arek? Oropesa'ra eldu zanian neketu zan-edo ta juan aberats baten moſoi geratu zan.

Artzaintxu a artalde gustijen zaindari egin zan. gero ogasun osuen banatzale. Langiſia zan, baña soñez etzan antzekorik be. Begi argijak, ule baltza. Ugasabaren alaba bat arekin maſe-mindu zan. Etxekuak ontzat aſtzen dabe arein ezkontzea, baña Jon'ak egun batzuk gura dauz gauza gaſantzitsu a oldoztu nai ebalako. Olako baten iges-egiſen da.

Urte beſe baño etzan igaro. Oropesa n agertu zan baſiro, baña lengo antzik, be, ez-eukon. Txiro ta iſun ebilan. Egun baten aldian eukozan diru gustijak txiruai emon eutsezan. Diru areik buruzagijarenak ziran. Oſegaſik urkamendira eruan eben eta zugatza bati loſuta zan bitaſtian azkespena eldu yakon. Baña gudarostetik jaurti eben.

Turkotaſen auſka juan zan. Viena'n be egona da, baña Compostela'ko Jagoba'ren iſobija deuna ikeſtu biaſ ebalata, Galizia 'runtz eldu zan. Orduban etxeko batzuk eukozala gomutaratu yakon. Baña belu. Ilda egozan. Sendi-aſteko batek etxie opal duten dautso. Baſiz España'n saſtzen da ta Sevila'ko abere-jaun baten moſoi geratu zan. Emetik be igeska juan zan eta Apirka'n iraun ebezan urteren batzuk. Ceuta'n argintzan ibili ostian, Gibraltar 'eratu zan. Emen idaztijak salduten dauz.

Ija beſogei urte eukozan. Olako baten Granada'ra eldu zan. An jazoko yakonik ez-eban susmau. 1537'gn. urtia zan eta Andalucia'ko belgundari nagosija ixan zan Avila'ko Jon zoruntsubak itzaldi Jaungoikotijak egiſen ebazan. Sabasten deunatzaz jardun zan eta gudari arek zer egin eban atzaldu eutsezan an ziranai. Gudarostietan zer egin eban Sebasten'ek ikusi eban Portugal'daſ gaxuak.

Bijotza erdibiſu yakon eta bertan bera jausi zan Urtzi'ri deika: Parkatu nagixu Jauna, parkatu". Elexatik kanpora jaurti eben, baña txaidietan, be, baſdin egijan. Etxian eukozan gauza gustijak banandu euzan eta zoro baten antzean kalez-kale saltoka asi zan.

Umiak eta lan-bako alpeſak aſika egiſen eutsen. Baña deunak erantzuten eutsen: Ondo egiña, auxe ta geyago zoſ yat obendarija nazalako". Portugal'daſ aren gauzak ikeraz jaſi ebazan agintarijak eta zorotzat eruan eben. Zoro-etxian, ostera, poz-pozik geratu zan Jon deuna.

Zoro-etxian zer jazoten zan ikusi eban. An ziran gixon deungiak emon-emonak egiſen eutsezan zoro gaxuai. Onek mindu eutsan bijotza. Ikeragaſijak esan eutsezan gixon arei.

Onetan Jon'ek gauzen baſi eldu yakon Avila'ko zorundunari. Beriala igaſi eban zer jazoten zan aren goguan eta lagundu eutson. Jaungua'ren alatza zan axe. Eta bide areik barna jaſatu egijala eskatu eutson. Bijen aſtian gogai gurena osotu eben. Gexotetxe baten asmua soſtu yaken. Eta olantxe ageſtu ziran Jaungua'ren Jon Deuna'ren Gexotetxietako Anayak.

Guadalapu'ra juan zan Miren Neskutza'ren baſespian bere gauzak jaſi gura euzalako. Granada'ra saſtu zanian, eguſ-eze-piſo bateki etoſan, zelan edo alan diruba irabazi gura ebalako. Ez beretzat bere txiroentzat baño. Andik lasteſ etxetxu bat erosi eban gexuak eta txiruak non egon euki egijen.

Beſogei oe eukozan. Txiroz eta gexoz betetu ziran inguru gustijak. Gustijentzat janari eukon, baña gogo-janari lenengo emoten eutsen. "¿Zenbat aldi da autoſtu etzarala?". Olantxe lan ixugaſija egijan. Kalian etzazan txiruak-eta aſtu lepuan, ¿baiſ, eta eruaten ebazan.

Olantxe Murillo margolarijak morgostu euskun deun au. Avila Irakaslia'k ondo lagunduten eutsan. Gongotzañak be ondo lagunduten eutsan. Olako baten dei-egin eutson esanaz: ¿Emoten dautzudazan janz kijakaz zer dagixu? Egunean-egunean janzkijak aldatuten dozuz? "Baña lasteſ jakin eban txiruakin aldatuten ebazala. Txaſenak ziran beretzat, onenak txiruerantzat. Baña bein esan eutsan Gongotzañak: Gauſtik auſera eztozu olakorik egingo. Janzki deun bat emongo dautzut neronek onetsiſa. Ezegixu kendu iñoiz. Etxerik loyenetan, lixunkerijetan bixi ziranen aſtian auſkiſu euzan bere lagunik onenak. Gustijakaz Bazpatza deuna irazi eban.

Gexorik jausi zan. Lan geyagi egin eban, baña Genil-ibayak eguſ asko ekaſi ebela esan eutsenian, jagi zan oetik eta arinka juan zan ibai-ondora. Bere txiroentzat eguſa biaſ eban. Olako baten urak eruan eban gaste bat. Plausta uretara buru jaurti eban eta gaste a gaizkatu. Oso txaſto eguan olako eginkixunak bere osasuna kenduten eutselako.

1550'gn. urtian epala-8'gn. il zan. Deunoſen alatzak eta eginkixun deunak zabaldu ziran alde gustijetan. Beriala Bazpatza deunera saſtu ziran gasterik jakintsubenak eta onenak.

Jaungua'ren Jon deuñak txiroentzat egin ebazan lanak eztira txikeſak, andijak baño. Oſegaſik txiroen zaindari deuna da.

Erletxue'ri

卐 卐

Garate'taſ J. M.

Euzko-baratzan
ezti-gai bila
zintzo ari zan
erlia
Ebro'z bestera
eruan dabe.
¡Gilzpian dauke
gaxua!

Zeu eſugia
ixanagaſik
akats dautzube
ezaſi.
ezaſi.
Abaurik eztan
erlauntz oſetan
bai-zara zuzuts
-egaſi.

Euzko-erletxu
mintzo-mintzua,
itxan apuſño
alaiki.
Auzi oſetan
eſurik gabe
lasteſ ba-zara
garbiki.

Erle eztigiña
anaſ kutuna,
gorantza jaso
bijotza.
Etzai ankefoſ
Goiko Jaun onak
eskako dautse
zuzutza.

Zeuk biſaſtian
abesten ekin
latxiñak ziaſ
egazka.
Euzko-luſian
azkatasuna
asi yaku, ba
dirdirka.

KORTEZUBI

IGAZI DAN IGANDIAN.—Igazi dan igandian Bilbao'taſ Estepantxu emen ixan da. Eta Estepantxu'ren ikeſtaldija zala-ta, emengo albontsataſak, margariſo-margariſa neskazaſak, pozik ixan ziran.

Albontsa anka-luze be, lasteſ etoſiko yakiela diñue.

Oneik, emengo "katoliku dobliok", euren esakeretatik antza artzen yakenez, Borbon'daſ Albontsa'ren etoſeria, Josu-Kisto Ber-Berarena baño be poz aundijaguaz aſtuko leukiela dirudi. ¡Zoruak!

¡Ibili, ibili, oſtik, zeuben etxeko zorijona, Albontsa atzeſiſaſak ekaſiko dautzube-ta...!

JAYOTZA. — Geure adizkidiak diran Zabala'taſ Damen eta Gabika'taſ Gotzon 'ek, alabatxu bat ixan dabe. Eta sena; -emaste bi oneik benetako abeſtzaliak dira-ta, euren alabatxu jayopaſija, Miren Begoñe euzkel-ixen begikuakaz ugutzau dabe.

Zorijonak, eta auſera be olantxe jaſatu.

卐 卐 卐

"Entzun, ¡ondo entzun!"—diño "Ibon" 'ek bere aurtemingo "Egunekua,,'n. Eta gero, euzkotaſa danak, abeſtzalia danak, seme-alabatzubak euzko-ikastolaetara bidaldu biaſ ebazala iñuan.

Egi aundija orixe. Gure adizkidia dan Ikazuriaga'taſ Joseba Bediſa'k, dei ori, ondo entzun dabenaren antza atara dau, bere seme-alabatxubak "Oma" deritxon auzo-ikastolara bidaltzen dauz-ta.

Ikastola aretako irakaslia emakumia da, baña abeſtzale ta euzkeltzale sutsuba. Irakasle arek, kistaſ ikasbidia ta abaſ, dana euzkeraz irakasten dautsie. Irakasleme jeltzale oneri, Beſijaetxebaſia'taſ Pele deritxon. Aſtu begiz, irakasle zintzo onek nire zorijon aguſik bijotzetikuenak.

Euzkotaſak ezkotaſari lagundu biaſ dautsala, goguan ixan daigun, ba.

GORA BETI.

Sagardoantzako eta ardoantzako Kortxurik onenak.
Luis de Olano
Plaza de las Escuelas, 10. Donostia

Pizti - Patariak

Aragi - jaleak

POTOXA

Pizti aragi-jale au, erderaz "turón" izenaz ezagutzen dana da.

Euzkaldun askori azaſi samaſa eretxiko yako nire esana. "Zer?", esango-edo dabe: "potoxa, turón? Potoxak ez ete dira, bada, katakux-katamielgak?"

Euzkaldun letraduren batzuk, ostera, andi auſkituko dabe "turón" edo "mus selvaticus" baizen pizti txikia aragi-jaleen aſtean nik emen jaſtea; batez bere, "mus selvaticus" edo solo-sagua bedaſ-jalea izanik, edo geyen bere, xomoſo-jalea.

Ez dot ukatzen batzuk eta besteok nire esana buruz-belaſi ez siñistuteko zerbait zio izan legienik. Leen bere esanda nago piztien izenetan euzkeraz naste asko dala. "Potox" izenari bere, auxe berau jazoten yako. Baña, euzkeraz ezeze, erderaz bere ba-dira nasteok, eta egin-eginean, "turón" izena dogu diñodanaren ezaugaſi. Alde batetik, "mus selvaticus" edo solo-saguari, "turón esaten yako erderaz, eta izen berori erabili oi dabe erdeldunak baita "patorius foetidus" edo gure potoxa esateko.

Mataza au askatuteko asmoz, esan dagidan leenengo "turón" edo "potoxa" zer dan, eta azkenean esango dot zelan egin nazan euzkerazko izen onen jakitun.

卐 卐 卐

Ez katamielgak baizen andi, ez ogigaztaiak baizen txiki, eretzean bitzuok baño luzanga-ezagotxoak dira potoxak, baña bitzuok legez odoltzaleak eta gaiztoak, eta baseſitaſentzat katamielgak baizen kaltegaſiak.

Ezterlaz potoxa beserdi bat inguru luze da eta buztanak beste bost-sei atzbete daukotsoz. Ankak labuſ eta sendoak, mustuſa motza, bigote andiakaz, eta agin sendo zoſotzak; belaſiak, buruaren irurena gañakoak. Naſua uletsua eta guria; buztana astin samaſa. Margoz, bizkaſa eta gane aldea aſea, alboak goſistarago, azpiak baltziskak; ankak eta buztana baltzak; burua nabaſa, zetaka luzetxo zuriakaz.

Ogigaztaiaren antzera, potoxak bere, etxe-bixitzen auzunea bilatuten dau egotegitzat, naiz dala zugatz aſoetan naiz aſi taſteetan; eta negutean, bai aletegietan, bai aitz-zuloetan eta baita basetxeetan euretan bere, zokondo edo zirkiluren baten.

Geyenetan, gabez baño ez dau ekiten eizean, eta al dauala beti gura izaten dau ilkizuna otoz-otoan atrapa, edo bere amaſukeriz edo bestearen loaz baliauta, Oilategiren baten sartzen danean erakusmeneko triskantza andiak egiten dituz eta al dituzan egazti guztieri samea kendu ostean, bere gordelekura bat baño ez dau eroaten.

Luſ eſasean abiyea egiten daben txoriak bere garbitu egiten dituz, dirala epeſ, galepeſ naiz laſatxori; etā txori aiteak edo omeak ezin il izaten dituzanean, kumak iruntsiten dituz edo aſautzak edoski.

Eztia bere indaſ atsegin izaten yako eta neguan erleak izaten daben lo-zoſoaz baliauta, zatitu egiten dituz erlauntzak eztla aterateko. Onez ganera, basoko aſatoiak eta satoſak bere jaten dituz. Erbiak eta untxiak, baſiz, bardin ilten dituz zein euren saizuloetan zein zelai zabalean zeaſ koſiyan atrapata. Olako pizti bakaſ bat naikoa izaten da eundaz untxiak galduteko.

Ikusten danez baseſitaſentzat badaezpadako auzokidea da potoxa, eta bai eiza tokietarako bere.

Potox-emeak apiril azkenetan egiten dituz kumak, irutik zoſtziragiñokoak. Naſu baltzagaz jayoten dira kumaok eta ameok ardura andiaz aziten dituz. Leenengo ikasten dabena, txorien odola eta aſautzak edoskiten izaten da.

Potoxak egiñiko kalte gustien alderako onura bakar bat baño ez dau: naſua, esan dogunez, guria eta edeſa; egiñiko triskintzak ordaintzeko añakoa ez baña.

卐 卐 卐

Izenari gakiozan orain.

Amuſio n (Araba) bizi dodan anaye batek ba-zirauſtan esan: "Ba-da emen pizti bat, ez basakatu, ez katakux, ez katamielga: txikiagoa; goſistea; gaiztoa. Ataſiko batek gau baten amalau oilo il zituzan. Uſengoan beste amabi, bertan etxean. Baña jan, gau bakotxean bat baño ez; enpaiduak, il eta bertan itzi. Eta ilkintzok, egaztieſi karkaxorik eragin baga. Burutik eginda ebiltzan etxekoak. Azkenean, neu bertan nengoala, etxeko irol-urbideko aſipean piztí baten lepoa agiri zalarik, tiro bategaz akabau eben: diñotsudan piztia zan. Beste bat bere ikusi izan dot aſezkero, neure lagun batek ilda. Izenik ez dakit ez erderaz ez euzkeraz".

Bilbao ko naſu-saltzaile baten lantegian izan nintzan beste bein. Eſusiataſa jaubea. Izpaſingirako zerbait datzi gura nebala-ta, aſera ona egin eustan. Pizti-naſu asko erakutsi ostean, "Ona emen", esan eustan, gaztaña kolore bat aterauez, "Bizkai ko beste pizti baten naſua; oso-osorik dago, dakuskezunez. "Turón" deritxo españeraz; "pitua" (putois" frantzezez. Zein aldetan ez dakit, baña Bizkaya'n ileya dana bai. Gaiztoa da pizti au..." Eta anayeari entzun neutsan langoxea zan margoz eta ezteriaz.

Pizti Euzkal-eſikoa zan, beraz. Jo goyak eta jo beiak asi nintzan euzkerazko izenaren bila. Alpeſik. Solube aldeko baseſitaſak, ez Txori-eſikoak, ez Aſatia korik askok, alako piztien entzuterik bere ez eukan. Ez beste aldeetako askok bere. Neuk "subertekerarik" ez izan, antza.

Itaundu, beti itaundu, Otxandio'n bizi gizon bat "suberta" yakon bein. Gorbea eta Anboto'ko mendietan bizi osoan ikazgintzan ibilirikoa. "Ezagutu ez, ostera? Aſitaſteetan-da ibilten da. Gaztaña kolorea bai; mosu-bizaſ andiakaz. Gaiztoagau baten amabi oilo ilteko bere kapaz da a, eta gero bat edo janda, satspean edo etxe inguruko zokondoren baten gordeten da. "Potoxa" esaten dautselakoa daukot. Ziuſ-ziuſ ez, baña "potox" esaten ete dautsen nago".

"Potox" baña Mondragoe'n marteari esaten. Ekin nik ostera bere bateri eta besteari itaundu. Alpeſik, alabaña, bizkaltaſeri. Auzora jo beaſko et, dogu? "Orixe" euzkel-idazle ospatsuaz gomuta nintzan. Euzkerazko arazo eta Euzkal-eſiko gauzetaz ak ez dakianik ez da, oyez. Ona emen aren erantzun jazekoa:

"1) Erderaz bere, bai egazti, bai pizti batzuk, izen koſoka dabe, ta saſitan nastau daroez. Oſeitan bat "turón" dirudi. Pitois, pitotx, potox nai pototx eta "turón" bana dira (Cfr. Dic. Español). 2) Diñozun pototx ori, gure etxeon begiz ondo ezagutzen dabe (nik ez), eta Otzandio'n lez emen bere pototx esaten yako. Zure anai Amuſiokoak zuzen diardu ta eſusiataſ oſek bere bai (Euskaleſian ba dala arean), izenean okeſ egon aſen. Emen marta'ri katamarta esaten yako ta zure beste oſeſ pototx (pitotx bardin dautso, baldin ba da putois'etik aſtua). Mondrauko ta beste nonbaiko pototx izen ori, nastaua edo da. 3) "Beraz, diñozu, aren ustez (Duvoisin -pitotxa "marta"?" —Emen, Orexan, alan da beintzat."

"Potoxa" turón dala, naiko argiro erakutsi ete dodan nago. Baña ba-da besterik oindiño. Euzkal-eſiko piztia izanik, beste izenen bat bere izan legiala uste dot, ala -ta-nere; edo beñipein "potox" baño euzkerazkoagoa.

"Kirikiño" zanak (G. B.)—gauza bakotxari bere izen egokiaz deituzalea, zalerik iñor izan ba'da—"Bigaſen Krone" deritxon ipuin polita itzi euskun idatzita zenbat gura baſe egiteko. Ipuin aretan ("Bigaſengo Abaſak"—153'gn. oſialdean) ara zeintzuk pizti izentauten dituzan:

—"Zuk Jonandon, basasto (zebra) onegaz ta lengo azkonaſaz (tejón), batzuo bautzezuz katakux (marta), katagoſi (?), katamixeſ (ardilla) ta katamielgak (garduños), ementxe eingozu Krone'n antzeko piztidoi bat."

Baſtatz (paréntesis) aſteko itzak eta itaun-ikuſa, neuk geituak dira. "Katagoſi" Napaſoa'n eta Gipuzkoa'n, ardilleari esaten yako. Bizkaya'n, "katamixaſ". Andia da oſaitiño, "Kirikiño,,'k pizti batentzat esan-aldi oſetan izen bi imintea. Pizti batzuk barik, katagoſiak eta katamixaſak ez ete dira pizti bitzuk Bizkaya'n? Katagoſiak eta potoxak pizti berberatzuak izan barik, gero!...

Dakianak erantzun begi, aſen, euzkerearen onerako.

GAŔO'TAŔ BERNARTA M.

Atzalgaſiak.—"Eretzean", comparativamente; "ilkizun-a", la que va a ser víctma (muerta); "edozki", chupar; "irol-urbide", desagüe de aguas sucias.

ABADIANO

JUAN-ETOŔIJAK.—Granada'n udaldija igarota eſiratu da "Maſiena" auzo-ikastolako irakasle ona eta euzko-idazle trebia dan Azpeitia'taſ Julene anderea. Ondo etoſija.

Bere sendijagaz udea igaro Barcelona'ra juan da Itxaso'taſ Nikola pelotari azkaſa. Valladolid'era Apraiz'taſ Pantzeska abeſkide gastia.

Lamizkiz'taſ Maſkel Zornotza'ra bertako auzo-ikastolako irakasle joan da. Zeanuri're joan da irakasleme Munitxa'taſ Iñese emakume zintzoa. Zorijonak gustijoi eta ondo ibili.

AGUŔTU.—Tamalez aguſtu doguz Zelaya'taſ Benardin, Uristia'taſ Sorne bere emaztea eta onen aizta Jone abeſkide zintzuak ta kistaſ onak. Eſi gustija tamaldu da eurek eſi onetatik alde egitiaz eta batez-be "Mendiola" auzunako umiak eta gurasuak Sofne anderea umien irakasle ona ixan yake. Etxano'ko auzo-ikastolara irakasleme juan da. Anei eskeſ damotzuez Abadiño'ko gustijak eta batez-be abeſtzaliak ondo egiſe gustijakaiſik. Aguſ eta ondo bixi.

JAYOTZA.—Jon Gurutz abeſkidiak eta bere emastiak moſosko edeſ bat ixan dabe eta Jenar ixenagaz ugutzau dabe Untzueta 'taſ Gotzon ta bere emaste abeſkide zintzuak seme edeſ bategaz geſu dabe euren sendija eta Sabin euzkel-ixen edeſa ezaſi dautse. Bizkaſa'taſ Alesander eta Santa senaſ emaztiak alabatxu bat ixan dabe eta Eduſne ixen poliſa ipiñi dautse. Zorijonak gustijoi.

ARTIXAŔA.

Tchecoslovaquie'ko emakumeak

II

Eue Abeſi kutuna! Nere uſe goſizko amesetan ikusten detan maitagaſi garbia zeu zera.

Gudate nagusi auſeko urtietan, Viena'ko gobernua txekotaſen auſka gogoſki ibili zan eta beste neuſi batzuekin nazte, Lege-Etxe nagusian emakumeak sartzea galeraso zuan.

Eskubide au bai zuten auſetik emakume aberatz batzuek. Etziran ordea eurak Viena'ko Parlamentora iñoiz juaten, euren ordez gizazeme bat bialdu oi zuten.

Txekotaſak erantzupen edeſa eman zioten neuſi oni 1808-1909'g. Boheme'ko Lege-Etxe edo Parlamentora'ko aldun emakume bat aukeratuaz.

Emakume au, idazlari bat izan zan Bozena Vikova-Kuneticka andrea.

Austria'ko gobernuak, bere aukeramena ezereztu egin zuan. Au gora-bera ordea, bera da Europa-Erdiko aldun lenengoz izandako emakumea. Ludiko laſeſi guztietako emakumien zorionak izan zituan beraugaitik.

Ikuzten danez, guda auſetik Abeſi berbizkundea eta emakumiena alkaſen ondoan zijoazen.

Gudate nagusiak iraun zuan bitaſtean, gudan saſtu ziran laſeſi guztietako emakumeak asko suſritu beaſ izan zuten. Tchecoslovaquie'n ez zan etzairik saſtu eta augaitik Belgique'n eta France n añako negargaſirik ez zan ikusi Jaungoikoari eskeſak.

Baña txekotaſ emakume zintzoak neke aundiak igaro zituzten Abeſiaren aldez.

Bai zan an Maſſia izena zuan alkartasun ixileko bat. Maſſia au Austrien aurka lana egiñaz Tchecoslovaquie'ri azkatasuna irixteko sortua zan, eta emakume asko bazkidetu ziran beſtan.

Emakume abek aſixku asko eta aundiak igaro zituzten, galerazotako idaztiak eraman eta ekaſi egiten, Abeſiagaitik euren biziak opalduaz.

Lan abetan Austria'taſak aſapatu izan ba'zituzten, berialaxe erailgo zituzten.

Emakume asko denbora luzietan espetxetan egon ziran, konspiradorien adizkiak ete ziran edo susmua aſtu ziotelako. Euretatik bat M. Edouard Benes'en emaztea, eta Masaryk jaunaren alaba zaſena beste bat.

Onelako aſixku aundietan saſtu etziran emakumeak, lan aundia egiten zuten txiroen alde, eta euren aſtean Abeſiak garaituko zuala, eta laisteſ azke izango zala itxaropena zabaltzen eta sendotzen alegindu ziran.

Gizazemeak gudan ziran da, ien ayek egin oi zituzten lan guziak emakumeak egin beaſ izan zituzten. Onetxek lagundu dio asko txekotaſ emakumeari gero aſapatu dituan malak irabazten.

Abeſia azkatu zanetik, Lege beſian 106'g. atalak esaten duanez, gizazeme ta emakumeak eskubide beſdiñak izanik, Legearen auſean berdiñak dira.

"Declaration de Washington,,'en iritxi zuten emakumeak au, Masaryk jaunari eskeſak.

Tchecoslavaquie'ko Legean idatzi zan berdintasun onek, amatasuna ta sendia edo pamilia berarizko laguntza baten azpian artzen ditu. Lege onek ematen dio emakumeari, bai aldun bai ziñegotzi (bai kontzejal bai diputadu) izateko aukeratu al izatea eta aukeratua izatea.

Comite National izendun Batzaſean izan ziran emakumeak, aldunak izan ziran. Lenengoz egin zan Batzaſ Nagusi Laſeſitaſean bederatzi emakume izan ziran baſuan, bost sosialisten aldeſdikoak, bi agrario alderdikoak, eta beste bi National democrata alderdikoak.

Askok bakan iritziko dio emakume abetan katolikotaſ gutxi izatea. Tamala da benetan baña ageſtuko det onen zegaitia.

Tchecoslovaquie Austrien azpian egon zanean, Austria'ko gobernua izenez katolikoa zan. Izenez. An izan oi ziran ba sekulako ibildeun edo prozezioak, gudariak eta gudari agintariak zituzten uſe margodun pitxiak soñekoetan zituztelarik, oñezkoak eta zaldizkoak, iñon diran sable, bayoneta ta abaſ eguzkitan diz-diz egiten zutela!

España'n ere uskurtz edo erligio berdiña zan, eſderaz "religión oficial" esaten zayona.

Beste gauza bat. Austria'ko gobernuak erligioa eta eſege-aulkia gauza bat zirala erakusten zuan, España'ko eſegezaleak ere Eſomaren auſka erakusten duten bezela.

Gañera Austria'ko gobernuak Tchecoslovaquie'n eta beste eſi menperatu guztietan Zuzentasunaren auſka egiten zituan lotzagabekeri guztiak erligioaren izenean edo erligio deuna autan da mitan aſtuta egin oi zituan.

Auxegaitik, Austria'ren menpetik eſten zuten eſiak erligio gutxi erakusten dute, Austria'k erligio santua goſotagaſi egin diotelako. Auxegaitik Tchecoslavaquie'ko emakumeak (beste alde batetik ain argiak eta begikoak) katolikotasun gutxikoak dira tamalez.

Guk, ordea, ez diogn oſetan jaſaituko, beste gauza batzuetan baizik.

Gure erligioa, euzko emakumien erligioa, sendoa da, eta España'ko lengo ta oraingo eſegetaſak, eta geure aſtean ditugun Judas'taſ guztiak alegindutzen ba'dira ere, guk ez degu iñoiz gure katolikotasunik galduko, katolikotasuna ta geure Abeſi bakaſaren maitetasuna alkaſen auſka ez daudela ondo dakigulako.

AŔITOKIETA.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3º. DONOSTIA

¡EUZKELTZALEAK!
ARIETA BITXIZALEA
Marca registrada 99356
¡ARA ZEUN ORRATZA!
LEGAZPI, 10'n Urrutizkiña, 13.777
DONOSTIA